



**Liburua
erosteko,
klik **hemen****

(<http://hernanikokronika.tumblr.com/>)

07/10/2014 12:25

Galdu ezin diren 5 ekintza

Biharkoa izango da aste honetako festa egun haundiena, eta Sagardoaren Lurraldeak 5 ekintza gomendatu ditu.

Batetik, Sagarraren Azokan buelta bat ematea. Goizeko 11:00etatik 14:00ak bitartean egongo da irekita, eta hainbat gauza ikusi ahal izango dira: sagarren erakusketa, herriko baserritarren produktuak, saski edota txertaketa erakustaldiak...

Bestetik, bertan izango diren sagardogileen sagardoak dastatzea. Era berean, 2014ko uztako aurreneko muztioa nola egiten duten ikustea, era tradizionalen: sagarra bildu, jo eta zanpatu. Ondoren, muztioa bera probatzeko aukera ere izango da, topa egitearekin batera.

Azkenik, haurretzako sagargintza proban parte hartzea: kizkiarekin bildu beharko dituzte sagarrak, bi zaku bete harte, eta, ondoren, leran garraiatu.



Haurrek sagargintza proba egin ahal izango dute: bi zaku bete kizkiarekin bildutako sagarrekin, eta, ondoren, leran garraiatu.

Sagarra, festako izarra

Beste hainbat ekintza ere izango dira, beti ere, sagarra eta sagardoa ardatz izango dituztenak.

Esate baterako, erakusketa jarriko da frontoian, Sagardogintza gure baserrietan izenekoak. Bestalde, VII. Sagar Uzta Argazki Rally Digitala egingo da. Bertan parte hartzeko izena eman behar da, momentuan bertan, eta, segidan, tartea izango da argazkiak ateratzeko. Era berean, sagar tarta lehiaketa egingo da, eta tartak entregatzeko epea zabalik egongo da 10:30etatik 12:00ak bitartean. Partre-hartzaile bakoitzak tarta bakarra aurkeztu ahal izango du, eta gutxienez lau pertsonentzako izango da. Edozein osagai erabili daiteke, baina ezinbestekoa da, noski, osagai nagusia sagarra izatea.

Haurrentzako jolasak, proba eta gazta dastaketa

Adin guztietako jendearentzako izango da zerekin gozatu. Haurrentzako, adibidez, sagargintza probaz gain, tailer eta jolasak izango dira 11:00etatik 13:00etara bitartean. Horrez gain, gazta dastaketa gidatua egingo da: 11:00etatik 11:30etara, 8-10 urte bitartekoentzat; 11:45etatik 12:15etara, 10-12 urtekoentzat; eta 12:30etatik 13:00etara, helduentzat.

AEK-ko zakuak, zenbat kg?

Festan izango da AEK euskaltegia ere. Sagar zaku bat jarriko dute zintzilik, eta zenbat pisatzen duen asmatu beharko da. Bestalde, sagardoa eta gazta probatzeko aukera izango da, eta ikasturte berriko informazioa emango dute.

XIV. SAGAR UZTA

GAUR

09:30 Sagar motak ezagutuz ibilbidea Santiomendiko Sagardo Bidean.

BIHAR

09:00 I. Sagardobide Erronka. Santiomendin zehar, sagardotegien arteko errelebo proba.

10:30-12:00 Sagardogintza gure baserrietan erakusketa frontoian.

10:30-12:00 Sagar tarta lehiaketarako tartak entregatzeko epea frontoian*.

10:30-12:00 VII. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalan izen-ematea frontoian*.

11:00-13:00 Gazta dastaketa gidatua*.

11:00-13:00 Haurrentzako tailerrak eta jolasak.

11:00-14:00 Sagarraren azoka:

n Sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta.

n Sagardo dastaketa.

n Saski, txertaketa... erakustaldiak.

n Herriko baserritarren produktuen salmenta.

n Muztio dastaketa herrian zehar trikitilariekin.

11:00 2014 uztako lehenengo muztioaren elaborazioa. Sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.

12:30 Sagar dantza eta kirikoketa.

13:00 Txalaparta eta muztio dastaketa.

13:30 Haurrentzako sagargintza proba.

14:00 Sari banaketa.

14:30 Herri bazkaria Gure Izarra elkartearen.

*Izen-emateak: 943 55 05 75 /
info@sagardoarenlurraldea.com

Tweets
Follow

Urumeako Kronika
@KronikaNet
1m
Nafarroa Oinezera joateko, autobusa
[#hernani dlvr.it/77JHCh](#)

Urumeako Kronika
@KronikaNet
32m
Bertsoak dantzatuta, saio berezia
kiroldegian [#hernani dlvr.it/77HPHZ](#)
Expand

Urumeako Kronika
@KronikaNet
1h
Gripearen aurkako txertoa jartzeko,
izenematea [#hernani dlvr.it/77FINf](#)

Urumeako Kronika
@KronikaNet
2h
Bost partidu irabazi, eta beste bost galdu
[#hernani dlvr.it/77Dvjy](#)

Urumeako Kronika
@KronikaNet
2h
Odola emateko hileroko zita, gaur
[#hernani dlvr.it/77D4JL](#)

Tweet to @KronikaNet

Sartu

Tweet 3

Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Bidali

Aurreikusi

Azken argazkiak



Goizuetako fiestak (Umeen ...)



Aranoko Santioak (igandea)

Azken bideoak

Aizondo abesbatzaren emanaldia
(/bideoak/bideoak/astigarragan-zaharrei-omenaldia-6/)Goizutrail mendi lasterketa 2014 - Felix Loiarte
(/bideoak/bideoak/goizutrail-mendi-lasterketa-2014-felix-loiarte-8/)

ARGITARATZAILEA

dobEra
EUSKARA ELKARTEA

ZEIN GARA

URUMEAKO
kronika

KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120
Telefona: 943 33 08 99
E-maila: kronika@kronika.netSantio zeharra 8, Kiroldegia - Astigarraga 20115
Telefona: 688 660 714E-maila: astigarraga@kronika.net / urumea@kronika.net

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euzko Jaurlaritzako
Gobernuko Vascok

Hernaniko udala



Astigarragako Udala

Ereñotzuko
Auzo Udala

Aranoko udala



Goizuetako udala

DOBERA
KRONIKA
BAZKIDEAK